



# KATAPULTAREN MANIFEST(u)A

Manifestu hitza entzun eta, zer nahi duzue esatea, “Komunista” datorkit burura, 1848an idatzitakoa. Eta bi gizon serio, traje ilunak soinean, dena bizar eta bibote, dena espantu eta imintzio, sutsuki hitz egiten.

Manifestua zer den irakurri eta “zenbait asmo edo doktrina, doktrina!, aditzera emateko egiten den idatzia” dela jakitean, beste gizon batzuk datozkit gogora. Horiek ere beltzez jantzita; gona luzeekin, ordea. Baina imintzioka baita ere, hatz erakuslea noranahi eta edonori zuzenduta beti.

Eta ni ere beltzez nator, eta batzuetan gona janzten dut, eta masailetan badut bixar... bilo pixka bat, baita sudurpean ere. Eta besoekin imintzio handiak egiten ditut: lagunekin dantzan nabilenean, behintzat, beti. Baina, aldarriak egin eta hatza astindu? Nik, aukeran, manifestuak baino nahiago manifestak.

Ze, zer manifestatu ahal dut nik Haur eta Gazte Literaturari buruz, nire aurrekoek, hobeto gainera, manifestatu ez dutenik?

Gauza bat badut argi behintzat: ezin dut idatzi oinarrizkotzat eta ezin eztabaidatuzkotzat hartzen den baieztapen-errenkadarik. Ez baititut gustuko konbentzioak, ezta egia absolututzat hartu eta ametitu eta jarraitu beharreko sinesmenak ere.

Ez zaizkit etiketak gustatzen, ezta gauzak sailkatzeko seta ere. Baina, tira..... egingo dugu ahalegina.

Literatura ona eta literatura txarra, besterik ez dago.

Itxoin, itxoin... Itxoin pixka bat, txarki esan dut. Literatura eta txarra ezinezko kontzeptua baita. Oximorona! Zaintiratua, krakatekoa eragiten duena buru barruan. Literatura literatura baita. Berez ona. Zera esan nahi dut, literatura eta ona esatean gauza bera esaten ari naizela. **Barka erreduantzia**, baina **erreduantzia** bat **esaten** ari naizela **esan** nahi dut. **Barka (ui!)**



Begira: gorputz osoa inarrosten dizun zirrara nabaritzen duzula, horra, horixe duzue literatura. Markaz fuerakoa eta sailkapenik behar ez duena. Li-te-ra-tu-ra.

Baina, tira, tematuta bazaudete, haur eta gazte literatura zer ez den esango, dizuet:

Ez da errazkeria.

Ez da negozioa.

Eta ez da inor leziatzeko tribuna ere.

Haur eta gazte literatura KATAPULTA da.

Ihi bat da. Lerdena, zuta eta malgua.

Ez da haritza, baina ez da ahula, ezta hauskorra ere. Zumearen antzera xumea da, eta umearen antzera egoskorra; makurrarazi arren nekez behartuko baitugu bere senak agintzen ez diona egitera. Eta bihurria da, eta jostaria. Putzuetako xomorroek ondo dakite: Galde egiezue zer darabilten katapulta gisa, iep!, airean jostatzen ibiltzeko. Sekulako festa!

“Sesamo, zabal zaitetz” totala da haur eta gazte literatura niretzat, nahi adina aldiz baliatzen dudana. Behinola ikasiagatik ahazteko ez dudalako, magal goxoan bilduta eta kontaera baten oihartzunak kulunkatuta lehendabizikoz entzun eta ahazteko ez dudalako.

Maitasun-ekintza da niretzat haur eta gazte literatura. Maitasun ekintza horri zor natzaio. Zor gatzaizkio guztiok. Eta ez dago munduan hura baino karga gozoagorik. Kitatzeko samurra, gainera: ingurukoei pasahitz magikoa xuxurlatu besterik ez duzue. Sesamo!!!!!!!!!!!!

Pagotxa da haur eta gazte literatura: gastatu ahala, partekatu ahala, aberasten da norbera eta handitzen da altxorra.

Katapulta! Katapulta da haur eta gazte literatura, bizitzarena, bizitzarakoa.



ZARAUZKO UDALA

Hauxe nire manifesta txikia.  
Zuen gustukoa ez **bada**,  
Ni neu sartuko naiz kal**abazan**.  
Nahi duenak, hots egin diez**adala**:  
Sesamo!! .... atea izango du **zabal**.

Eskerrik asko manifesta txiki hau lotsagabeki katapultatzeko aukera eskaintzeagatik.

Zarautzen, 2025eko apirilaren 2an

*Idoia Garzes*



LIZARDI SARIA